

KLONAZIOA. Munduko lehen animalia klonatuaren jaiotza mugarri itzela izan zen mundu osoko zientzialarientzat

'Dolly' hil da

Roslin Institutuko arduradunek ardia hiltzea erabaki zuten atzo, osasun arazo larriak zituelako


Erredakzioa | DONOSTIA

Duela zazpi urte, 1996. urtean, Edinburgoko (Eskozia) Roslin Institutuko zientzialariek *Dolly* ardia sortu zuten, lehen animalia klonikoa. Urtebete geroago ardia kazetarien aurrean aurkeztu zuten. Ikusmin handia eragin zuen, eta munduko animaliarik ospetsuena bihurtu zen. Atzo, *Dolly* ardia lbiste iturri bilakatu zen, beste behin. Izan ere, Roslin Institutuko arduradunek jakinarazi zuten, animalia hiltzea erabaki zuten, osasun arazo larriak zituelako.

Albisteak ez ditu ezustean harapatu mundu osoko zientzialariak. Izan ere, jakina zen gaixo zegoela. *Dolly*-ren klonazioa gidatu zuen Ian Wilmut zientzialariak adierazi duenez, *Dolly*-k biriketako infekzio larria zuen. Gaitza sendaezina zen, oso larria. Horrek animalia hiltzera behartu ditu.

Aldez aurretik iragarritako heriotza

Zientzialariek behin eta berriaz aipatu izan dute *Dolly* gainontzeko ardiak baino askoz ere azkarrago ari zela zahartzen. Ar-



'Dolly' ardia. Atzo hil zuten, gaitz larria zuelako.

diari hiru urte zituenean eginiko azterketa batean, telomeroak beste ardiak baino laburragoak zituela frogatu zuten; kromosomen izkinak motzagoak zituela, alegia. Zelulak zatitzen diren neurrian txikitzen dira telomeroak; zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta telomero labu-

rragoak. Hiru urte zituela sei urteko ardi baten kromosomak zituen *Dolly*-k.

Handik hilabete batzuetara, berriz, *Dolly* ardia artritisak jota zegoela jakinarazi zuen Roslin Institutuak. Aditu askoren susmoak betetzen ari ziren. Artritisa *Dolly*-ren zahartzaro goiztia-

rraren seinale nabarmen eta argia zela esan zuten ikerketa talde askok. Berehala, bizi laburra iragarri zioten. Mundu guztiko hamaika zientzialari bat etorri ziren: ez zen batere normala bost urte eta erdiko ardi batek artikulazioetan hanturak gartztea.

Azkenean, susmo txarrak egia bihurtu direla dirudi. *Dolly* gazterik hil da. Bere sortzaile Ian Wilmuten adierazpenak aski argigarriak izan dira. «Ardiak hamaika edo hamabi urte bizi daitezke». *Dolly*, gaixorik, sei urte eta erdi zituela hil da. Gazte.

GATAZKA

Aurkezpena, eztabaida latzaren abiapuntu

1996ko uztailaren 5ean jaio zen *Dolly*, 1997 arte jakin ez bazen ere. Aurkezpenean, Roslin Institutuko zientzialariek, ardi heldu baten egitura genetiko bera zuen arkumea lortu zutela esan zuten, eta horretarako transferentzia nuklearra izeneko teknika erabili zutela. Ordutik, eztabaida sutsuak izan dira gizarte osoaren baitan. Klonazioa gizakietan ere aplika daitekeen izan da eztabaida sutsuenetakoa, etikoa batez ere.

Eztabaidak eztabaida, ikerkuntzak aurrera darrai, eta bada gizaki klonaturik jaio dela dioenik ere. Raeldarrek eman zuten berria, orain aste batzuk. Frogarik gabeko iragarpena izan zen, ordea. *Dolly*-rena ez bezala.

ARGAZKILARITZA. World Press Photok irudi onenak saritu ditu



Urteko argazkiak mina du

Urteak mila irudi ditu. Mila lekutan mila argazkilarik jasotzen dituzten mila gertaera. Horietako esanguratsuenak saritzen ditu World Press Photok. 18 kategoriatan banatzen dituzte argazkiak, eta bakoitzetik hiru saridun aukeratu. Kategoria guztietako saridunetz gain, urteko argazkia ere aukeratzen dute. World Press Photok iazko

argazkirik onena aukeratu duenak, samina du. Eric Grigorianek ateratu zuen argazkia, zuri beltzean, Irango ipar-mendebaldean, lurrikara baten ondoren. Oinpean duen aita hilaren galtzak esku artean harturik, negarrez ageri da mutikoa. Naturaren indarrak sortutako inpotentzia, lurrikara baten ondorioa.

LABURREAN

HIESA

Hegoafrikako Legebiltzarrari gaitzaren kontrako plana egiteko eskatu diote herritarrek

Hiesaren kontrako plan bat martxan jartzeko eskatu zioten atzo milaka herritarrek Hegoafrikako Gobernuari. Lurmutur hiriko legebiltzarrean atzo hasi zen 2003ko jardun ofiziala. Tratamendurako Ekintza Kanpaina taldeak deitu zuen protesta, eta bertan izan dira sindikatu eta oposizioko politikariak, beste askoren artean. Otsailerako hiesari aurre egiteko plan bat osatzeko eskatzen diote Gobernuari, Hegoafrikan hiesa oso hedatuta baitago.

TABAKISMOA

Gero eta iragarki gutxiago egongo da Erresuma Batuan

Tabakoaren iragarkirik ez da ikusiko aurrerantzean Erresuma Batuko egunkari, aldizkari, posta, Interneteko publizitate eta promozio berrietan. Gobernuak hori galarazten duen lege bat jarri du martxan, milaka lagunen heriotza saihestuko duelakoan. Legea zorrozten joango da denborarekin. «Publizitateak funtzionatu egiten du, eta tabakoa hil», esan dute agintariek.

INGURUMENA

AEBek gas eragileen intentsitatea gutxituko zuela iragartzean gezurra esan zuten, WWF/Adenaren ustez

WWF/Adena erakunde ekologistak esan duenez, Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak gas kutsagarrien intentsitatea gutxituko zuela esan zuenean ez zioen egia. «Gezur arrisku-tsua» izan zela esan dute. Gasik arriskutsuenen intentsitatea 2012rako %18 gutxituko zuela esan zuen Bushen gobernuak asteazkenean.